

## MATERIALISMO HISTERIKOA

# Jakin-minaren mugak



UXUE APAOLAZA LARREA

**E**gunero-egunero gosál dezakegu mundua bidegabea dela erakusten duten adibideekin. Ahal dugu hala delako, eta hala jasota geratzen delako medioetan, hala adierazita ez bada ere. Ez dugu egiten, zaila baita egunero errugabetasunaren, erruduntasunaren, arduaren, materialismo historikoaren... logikak gosaritan askatzea, eta abiatu beharreko eguneroko ezinezkoan pribilejioren bat antzematea. Pribilejio batzuk sotilak dira batzuetan. Eta logika horiek zailduz ahularen etsai erraz egin gaitzaketen medioek berek eman digute bat-batean mundua bidegabea dela edonork ulertzeko moduko irudi hurrenkera. Bost pertsona Titan urpekarian; zazpiehun bat pertsona arrantzontzi batean. Eta ekipoak egin genituen: nor salbatu behar dugu?

Titanak zuku asko dauka. Nik neuk sinetsi dut "jakin-mina gero eta mugagabeagoa hobe", nik neuk goraipatu ditut jakin-min hutsez egindako erokeria batzuk... jakin-mina entretenimendu hutsal bilakatzeraino. Guk ere sinetsi dugu bidaiatuz ikasi egiten dela, bidaiatzea ez dela inorentzat kaltegarria. Eta bidaiaria hori teknologia erakustaldi bat zen, erreskatea bezalaxe: gerrarako jostailuak baino zibikoagoak, aurrerapen aurrerapenagoak iruditzen zaizkigu azalpen zientifikoak behar dituzten salbamendurako tramankuluak. Eta batzuk salbatzeko hainbeste baliabide egonda, zergatik besteak itotzen utzi: hori izan da sutu gaituen galdera. "Itotzen uzten ditugu" izan da zigortu gaituena.

Kontua da arazoa lehenago dagoela. Ez dakit gosariko jakin-mina iristen den bidaiaria hasi aurrekoetara. "Batak ez du bestea kentzen" garaian bizi gara. Eta gezurra da. Batak ia beti kentzen du bestea. Zergatik hasten den bidaiaria bat, zergatik bestea. Zergatik ez lukeen hasi behar ez batak, ez besteak. Zergatik batak eragiten duen bestea. Zergatik bata ez hasteko, ez lukeen hasi behar besteak. "Nor salbatuko dugu?" galdera bera tranpa bat da. Batzuk salbu zeudelako lehenago ere, besteak ez direlako inoiz egongo. Batzuk biografia zirelako lehenago ere, besteak zenbaki. Berez, ez zegoen konparatzeko ezer. ●

## EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



## Presoak

Judimendi auzoko festetan "auzoko presoek eskubideen alde" antolatutako ekitaldia eta brindisa ikertzeko eskatu dio Fiskaltzari Maider Etxebarria Gasteizko alkate berriak, "delitua dagoen iker dezan, eta, egotekotan, jurisdikzio penalera bideratu dezan".

## Greba feminista

Azaroaren 30ean izango da greba feminista orokorra. Denon Bizitzak Erdigunean prozesua abiatu zuen 2022an Euskal Herriko Mugimendu Feministak, zaintza sistema iraultzeko, eta greba mugarriz izango da bide horretan.

## Pablo Gonzalez

Pablo Gonzalezek espetxetik salatu du babesgabe dagoela, akusazio zehatzen faltan. Kazetariak hamasei hilabete daramatza behin-behinean preso Polonian, baina ezin du defentsarik prestatu, oraindik ez diotelako akusazio zehatzik egotzi.